

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HARANAKO UDALA

#### Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, 2023koa, ordaintzeko epearen hasiera

Udal honetako alkatearen aginduz, honako hau jakinarazten da, oro har:

2023ko martxoaren 20tik maiatzaren 8ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2023ko ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin behar, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zerga-bilketarako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko errekar-guarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Harana, 2023ko martxoaren 8a

*Alkatea*

**ROSA MARIA IBARRONDO MANZANOS**